

gozokiak poltsikoetan

Eskuliburu honekin
metaforen bila ateratzen naiz
gero apaintzen saiatu barik
zuretzat idazteko.
Oihurik indartsuena eko bihur daiteke
eta memoriari esker ez balitz
betirako desagertuko litzateke.

Hemen bidalitako alfabeto hauek
hor egongo dira, zuk nahi duzunerako
eta zurekin batera
eraldatuz joango dira.
Zurekin egongo naiz
oihuka banengo bezala.

Liburuetako lehen esaldiak bezala
nire begiek, letra hauek
sorostu behar dituzte
orrialdeko gailurretik
negar tanta balira bezala
orrialdean zehar labaindu baino lehen.
Halere, liburuak jada trsitezia ahaztu du
inork ez baitu amets egiteko gogorik
mundu digital honetan.

Laster errege eguna dator
eta bezperan kabalgata.
Ai ama! zenbat gustatzen zitzaidan,
poltsikoak gozokiz betetzea
eta etxera korrika batean
ur pitxerrak gameluentzat prestatzera,
eta alkoola pila bat monarka
bizardunentzat.

Aurreko egunean mahaian geundelarik
Laura
errege egun bezpera desberdin bati buruz
aritu zitzaigun afalorduan.
Eta poltsikoak malkoz beteta utzi zizkidan.

...Santiagoko gau ilun hartan
tanatorioan ere
Laurak bere lagun guztien besarkadak ezik
karameluak jaso zituen,
bere poltsikoetan
kolore anitzetako azukreak pilatuz.

Ez zen goxotasun nahikoa izan
bere ama erretzen laguntzeko.
Gauza gutxi gogoratzen ditu
orain dela bi urtetako
Santiagoko tanatorioko iluntasun hartaz.

Nahiz eta haurra bat ez izan
erregeoi ekar ezin zezaketen
opari bakarra eskatu zien.
Halere, agian lorik egin ezin izan zuelako
ez zuen jaso.
Eta jakina da, lo ez baldin bazaude
erregeak ez direla ausartuko.
Ziur nago horregatik
erregeak ez direla
tanatorioetako alkoola edaten ausartuko.
Han lorik ez dagoela
edo lo dagoenik ez delako.
Begiak itxita duten guztiak
ez direlako inoiz berriz iratzarriko.

Beraz, Laura iluntasuna barruan gordez
eta bere ama suarenean utziz
poltsiko bete gozoki atera zen handik
negar egin ezinean.